Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Felisa Arza Urdangarin

Ataun, Gipuzkoa
(1912-2010)



Aurkibidea

Biografia



Ataungo San Gregorio auzoko Urrutxu baserrian jaio zen Felisa Arza. Hogeita lau urte zituen gerra hasi zenean, baina Urrutxun ez omen zuten aldaketa handirik sumatu gerra denboran. Lanean gogor aritu behar izan zuen Felisak, gerra ondorenean, gerra aurretik bezalaxe, tartean behin ezpainetako soinua jotzeko beta hartzen bazuen ere. Izan ere, anaia musikaria zuen, eta bera ere oso zen musika zalea. Ataungo Lauztiturrieta baserrira ezkondu zen, baina alargundu egin zen eta Berrobira ezkondu zen orduan. Han bizi izan zen azken urteetan.

Zintak

ATA-007

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2010-02-08
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Etxeko ura eta arropa garbitzeko egin beharrekoak

- **Erref**: ATA-007/002
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:03:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Etxean ez zuten urik, baina auzoan gertu zuten iturria. Ganaduek askan edaten zuten. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du. Sutako hautsa erabiltzen zuten arropa garbitzeko. Arropa etxean egoten zen alanbre luze batean eskegitzen zuten.

2. Etxeko ardien esnearekin gazta egiten zuten

- **Erref**: ATA-007/006
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:06:19. **Bukatu**: 00:09:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
120-140 ardi zituzten etxean. 8-9 urte zituela hasi zen Felisa artzain-lanetan. Ardietatik lortutako esnearekin gazta egiten zuten. Gazta egiteko prozesua eta erabilitako tresnak azaltzen ditu.

3. Belarra garraiatzeko kablea

- **Erref**: ATA-007/008
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:11:05. **Bukatu**: 00:12:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Segan aritzen zen Felisa. Belarra bildu, buelta eman, sokarekin lotu eta abereen bizkarrean ekartzen zuten etxera; beste batzuetan, kablean botatzen zuten belarra. Kable hura anaiak muntatu zuen, eta belazetik bordara zihoan. Kable hartan kakoak jartzen zituzten belarra garraiatzeko.

4. Etxeko taloa eta ogia

- **Erref**: ATA-007/012
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:17:09. **Bukatu**: 00:20:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Otordu guztietan taloa jaten zuten, tartean zerbait sartzen ziotela. Ogia ere izaten zuten. Etxean egiten zuten ogia. Legamia behin erosi eta hurrengotarako gordetzen zuten. Ogia astean behin prestatzen zuten, eta hartarako labe berezia izaten zuten.

5. Eskolara gutxi joan ahal izan zuten

- **Erref**: ATA-007/013
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:20:19. **Bukatu**: 00:22:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan gutxi ibili zen, 14 urtera arte, adin horrekin ez baitzien uzten eskolan sartzen. Astean behin edo bitan joaten ziren eskolara. San Gregorion zegoen eskola. Maistra erdalduna zen, eta ez ziren ondo konpontzen harekin, ez baitzuten elkar ulertzen hizkuntza zela eta. Zigorrik ez zieten jartzen euskaraz hitz egiteagatik.

6. Gerra Atauna iritsi zenean

- **Erref**: ATA-007/018
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:26:49. **Bukatu**: 00:29:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra hasi zenean, nafarrak etorri ziren mendian behera. San Martinen "alto!" eman zieten hemengo soldaduek eta ez zuten aurrera egin. Gerora, herriko mutilek gerrara joan behar izan zuten. Hiru etxetako hiru mutil hil ziren gerran.

7. Gerra ostean errotatara ezkutuan

- **Erref**: ATA-007/021
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:31:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Herrian ez zuten irina ehotzen uzten gerra ostean. Horregatik, beste errota batzuetara joaten ziren. Estraperloa izaten zen garai hartan, eta guardia zibilek harrapatuz gero, irina kendu eta isuna jartzen zuten. Felisa bera ibiltzen zen lan haietan mando handi batekin.

8. Baserriko eguneroko menua

- **Erref**: ATA-007/025
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:34:56. **Bukatu**: 00:36:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Bazkari normal batean, babarrun egosiak eta sagar erreak jaten zituzten.

Afaltzeko porrusalda izaten zuten. Gauean ganbarara joaten ziren artoa zuritzera edo ganadua zaintzera, eta horren ostean, taloa eta esnea. Gaztaina zurituak ere jaten zituzten. Ura edaten zuten etxean eta gizonezkoek ardo pixka bat noizean behin.

9. Baserriko bizimodua: lan asko eta ahal zenean atsedena

- **Erref**: ATA-007/027
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:37:49. **Bukatu**: 00:38:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Gizonek eta emakumeek denek egiten zuten lan asko etxean. Siesta batzuetan egiten zuten, bero handia zenean. Ilunabarrean denak etxera itzultzen ziren eta denentzako lana egoten zen.

10. Soinua jotzen ikasia

- **Erref**: ATA-007/031
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:44:04. **Bukatu**: 00:45:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Soinua jotzen ikasi zuen Felisak artzain zebilela. Gustuko zuen soinua jotzea. Arantzazura eta Urbiara joaten ziren jaietan. Hara joateko, lagun-taldean joaten ziren.

11. Errazionamenduko ogia txakurrarentzat

- **Erref**: ATA-007/037
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:49:54. **Bukatu**: 00:50:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Errazionamendutik jasotzen zutena txakurrari ematen zioten, gogorra eta bel-beltza baitzen. Beraiek etxean egiten zuten ogia. Janaria soberan edukitzen zuten.

12. Mezara joateko bidea

- **Erref**: ATA-007/041
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:53:36. **Bukatu**: 00:54:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Neguan elizara joateko, lastoari su eman eta haren argitan joaten ziren. Bidean batzuetan banaka eta bestetan 2-3 laguneko taldean joaten ziren.

13. Errenterian neskame ibilitakoa

- **Erref**: ATA-007/044
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:57:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
16-17 urte zituela, Errenteriara joan zen neskame. Han ez zuen denbora asko pasa, etxera itzultzeko eskatu baitzioten. Tabernan egiten zuen lan: etxeko lanak egiten, zerbitzatzen...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-10

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com